

ELKARRI MOKOKA: Andrea Etxarri eta Pello Azpiroz **KUXKUXEAN:** Otsaileko zorion agurrak
ERREPORTAJETXOA: Uitziko eta Lekunberriko inauteriak **ELKARRIZKETA:** Ene Kantak

Ikusi
hemen
Mailope



issuu.com/mailopealdizkaria

Jali basurdea, Errazkingo bizilagun berria



Ainhoa Iriarte (Arribe)
Bertso berriak
Mailoperi jarriak



Errazkingo Jose Antonio Orejak masko-
ta berezi bat zaintzen du egunero.
Jali basurdeari jaten ematen darama
urtebete. Herriko gaztetxoan artean
Txikote izenez ere ezagun egiten ari da.

Inauteriak iritsi berri diren honetan, gaiarekin erlazionaturiko asmakizun bat proposatzen dizuegu. Bidaliezaguzu erantzuna mailope@labrit.net helbidera.

Zein pertsonaiak darama joare handi pare bat gerrian?

Joaldunak

Miel Otxin

Aratosteak



Sariak Denonartean argialetxearen eskutik:



Antsoñea
ARDE LATXAREN ESNE GORDINEZ
EGINDAKO GAZTA ONDUA

EDUKI EGOKIA
ELABORADO
A KANPA
100% NATURAL

TF. 948 51 34 68 . antsoñeagaztak@gmail.com . Urtegi

Atabal
okindegia

Era askotako
ogiak eta gozoak

Etxez etxe
banatuko dugu


Ogia enkargatzeko...
948513151

MAITE
harategia

BERTAKO HARAGIA
Txistorra, txorizoa,
salteixkak,
sukaldaturako platerak.
Etxera eramateko
zerbitzua ere eskeintzen
dizugu.
Antigua Kalea N°7
31890 BETELU

Telf: 948 51 30 88
maiteharategia@hotmail.com

- 04> Iritzia
- 08> Luze: Leire Aranburu
- 09> Lauburua: Bizikleta elektrikoak
- 09> Kuxkuxean: Otsaileko zorion agurrak



10 > Ene Kantak

550 pertsona inguru hurbildu ziren joan den hilean Plazaola Kiroldegian. Ene Kantak tadearen Oneka Marrazoa ikuskizunarekin gozatu zuten eskualdeko txikienek.

- 14> Erreportaje Nagusia
- 16> Erreportaje Nagusia: Arantxa Erbiti



24 > Araitz-Beteluko Krosa

Araitz-Beteluko XI. Herriarteko Krosean 201 korrikalarik parte hartu zuten. Proba nagusiko eskualdeko lasterkarien denborak jaso ditugu.

- 26> Elkarrizketaxoa: Jose Antonio Orejari elkarrizketa



28 > Aralarko San Miguel Jatetxea

Miren eta Mikel Zulaika anai-arrebak urrian hartu zuten Aralarko San Miguel Jatetxearen ardura eta dagoeneko martxa hartzen hasiak dira.

- 30> Zwekere taldea
- 31> Kontu txikiak



Eusko Jaurlaritzak, eskualdeko Udal, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Mailope doan banatzen da honako herrietan:

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitz eta Uztegi.

Argitaratzen du: Mailope Kultur Elkartea.

L.G.: NA 719/93

Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.

issuu.com/mailopealdizkaria

ERREDAKZIOA: Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Ainhoa Iriarte, Itziar Luri, Arantxa Mikeo, Alfredo Dufur, Nerea Urbizu eta Andoni Tolosa.

ARGAZKIAK: Labrit, Guaixe.eus, Maider Agirrebarrena, Plazaola Partzuergo Turistikoa, Nafarroako Bertsosale Elkarte eta Juan Antonio Garaikoetxea.

PUBLIZITATEA: Labrit Multimedia - 948 210 103 - mailope@labrit.net.

MAKETAZIOA: Mikel Azpilikueta.

TIRADA: 1.600 ale.

MILA ESKER BIZITZAKO IRAKASLEEI

Urte bat amaitzen denean, hurrengo urterako zorionak ematen eta gure nahirik onenak deseatzten egoten gara. 2015. urte amaiera honetan, "whatsapp" bat bidali zidaten, oso polita, amaitu berri den urte honetan, niretzako esanguratsuak izan diren pertsona horiei eskerrak emanez.

Nik ere, eskerrak eman nahi dizkiet, noizean behin, kalean gurutzatzen ditudan pertsona horiei, trenean igotzean edota jais-tean gurutzatzen ditudan horiei eta konturatzen naiz, horiek direla, biziraupenaren saririk handiena merezi dutenak.

Eskerrak eman nahi dizkiet, ikusten ditudan bakoitzean, ikasten dudalako, bizitzan aurrera egin beharra dagoela, eta beraiek horrela egiten dutela, ahal duten moduan, gozo-gazi guziekin, gure amak esango zukeen moduan.

Haiek, galtzerdi batzuk salduz edo gerriko batzuk eskuan, irakasten didate, pertsona hobe izaten, kexak alde batera utzi eta neurekoia ez izaten, besteengan pentsatzen eta zerbait ematen diedanean, ogitarteko bat erosteko edota kafe bat hartzeko, ez naiz inor baino hobe sentitzen edota ez dut sentitzen limosna bat ematen diedanik, baizik eta ikaskuntza bat ordaintzen ari naitzela eta gainera oso merke ateratzen zaidala. Haiek ezer jakin gabe, irakasten baitidate, ezer izan gabe, txanpon batzuk ematean, haien irribarrerik goxoena oparitzuz eta eskerrak emanez.

Nik beraiei ematen dizkiet eskerrak, borrokan jarraitzeagatik eta bizirautean irakasteagatik. Zuen aurpegiak islatzen duen lasaitasun eta duintasun espresio horrekin, eskerrik asko, eskerrik asko irakasle horiei, bizitzako gai gogorrenean, horrelako irakaspenak emateagatik; biziraupenean horrelako irakaspenak emateagatik.

Ongi etorri denori!!!
2016

Txaro Garate

Harriak Mugitu

Kaixo lagunok: Azken urteetan bezala urtarilean presoan eskubideen aldeko indarrak batzeko egunak izan dira eta aurten ere Aratiz-Betelu, Lekunberri, Larraun, Areso eta Leitzako jendearen parte hartzea handia izan da. Benetan eskerrik asko guztiei denok elkar tiratuz lortuko baitugu estatuetako mendekuz beteriko kartzela politikak amaitzea.

Estatu frantses eta espainiarreko 76 kartzeletan banaturik ditzute. Dispersio politikak 26 urte daramatza jada martxan. 2.000 kilometro astebukaera batean gehiegitxo da ezta? Oraingoz 16 hildako eragin ditu, ekonomikoki eta fisikoki askorentzat jasangaitza den desgastea dakar. Presoak etxetik urrun eta beraien artean ere bakarturik dauzkate. Nork mantendu dezake politika hau?

Eskerrak elkartasunari, Mirentxin furgonetak, Andaluziara joaten den autobusa, astebukaeraro joaten diren lagun eta senide guztiei, dudarik gabe bidaia amaigabe hauek elkartasunez eta duintasunez beteriko bidaiak dira.

Urtarrilaren 3an Betelun egin genuen zita, aurten erabili den leinari jarraituz "MUGI DAITEZEN HARRIAK", herrien arteko desafioa egin genuen, pintxoak eta trikitixa izan genuen, plazan dauden bi harri handiak mugitu genituen, bai, argi geratu zen, guztiok batera tira eginez gero edozer gauza lortu daitekeela.

SAREk Bilbon eta Baionan bildutako indar sozial itzela sostengatu eta bideratzeko, datozen hilabeteotan, dinamika berri hau jarri du martxan. Izen esanguratsua du proposamenak: HARTU TRENA!

Igo eskubideen aldeko trenera

Urtarrilaren 9an, bultzada garrantzitsua eman genien gure helburuak lortzeko bideari. Dispersioaren harrizarraren azpian, palanka sartu dugu. Orain, palankaren beste muturrean indarrak gehitu behar ditugu, harriak bidetik kentzeko... ikusarazi zen eskal jendartean orain arte gaindiezinak ziruditen hesien gainetik salto egin eta aurrera jotzea posiblea dela. Nabarmen geratu zen pertsona ezberdinak elkarrekin ibili gaitzkeela, kausa justu baten alde.

Kaleetara atera ginen guztion buruetan –zein bihotzetan- helburu argia zegoen: sufrimenduei ateak ixtea eta bakeari, konponbideari zein elkarbizitzari irekitzea.

Goazen denak eskubideen aldeko trenera!!!

Aratiz-Beteluko SARE taldea



Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi
mailope@labrit.net-era
hilaren 20a baino lehen.

Erosi zeurea
12 euroren
truke!

ENE KANTAK

Oneka Marrazoaren
ikusbizuna orain DVD-an.

Mailope aldizkariaren aldeko
proiektua.

Informazio gehiago: www.enekantak.com

Bertso berriak. Mailoperi jarriak

Ainhoa Iriarte (Arribe)



*Bardoak Larraunera
zaizkigu etorri
horrekin poztuko da
bailara ta herri
ekarriko baitigu
egiteko berri
zaila izango den arren
guk hartzera neurri*

*Bardoak Nafarroan
badirela hasi
bertsoak gure artean
daitezela hazi
gu ere lan horretan
garela nahasi
ahaleginak eginez
nahi dugu irabazi*

Juan Kruz-entzako puntua:

Udaberria dugu
Zaizkigu etorri

Oinak:

Kolorea, Lorea, Dotorea, Umorea



Doinua: Pasaiako plazatik

- 6 -



TTUTTURRE KIROL ELKARTEKO BAZKARIA

Urteroko ohiturari jarraituz hurrengo otsailaren 14an, igandea, bazkari irekia izanen da Oderizko Juanluzenea Sagardotegian. Ttutturre Kirol Elkarte, bazkide, lagun eta familiakoak gonbidaturik daude. Gehienez ere 70 lagunentzako tokia izanen da, beraz eman izena lehenbailehen ttutturrekirolelkartea@gmail.com e-postaren bitartez. Txartela 25 eurokoa da.



LARRAUN BAILARA TIRAMILLAS TELEBISTA SAIOAN

Navarra Televisión telebista kateko Tiramillas saioan Larraun ezagutarazteko tartea eskaini zuten. Ilbeltzaren hasieran Errazkinen, Iribasen, Baraibarren, Mugiron eta Etxarrin grabaketak egiten ibili ziren eta ilbeltzaren 28an emititu zuten telebistan. Saioa ikusgai dago www.natv.es atarian.



PLAZAOLAK BI KIROL LEHIAKETA AURKEZTU DITU FITUR-EN

“XIII Europako Rogaine Txapelketa – Aralar”, eta “I Plazaolako Natur Bidea Maratoia” izan dira aurkeztutako bi proiektu berriak. Abuztuaren 27an eta 28an aurreikusten dute izango del iraupen luzeko orientazio proba. Bestetik, Bide Berdeak Maratoia, Estatuko beste tokietan finkatuta dagoen lehiaketada eta irailaren 11n izango da.

Generoak, errolak eta ezberdintasunak



Andrea Etxarri

Ihoteetan gaude dagoeneko Pello, eta badirudi batzuek ez dutela argi oraindik ere, mozorroen azpian pentsatzen eta sentitzen duten pertsonak daudela. Entzunak izan dira azken aldian eman diren genero biolentzia kasuen eraginez gertatuko tragedia edo bukaera garrantzak, baina badira bestalde ez hain fisiko batetan ematen diren ekintza matxistak. Duela hilabete inguru, bai Ana Gabriel zein Ines Arrimadas politikariak haien itxuragatik erasotu zituzten komunikabide ezberdinen bidez. Adibideetako bat prentsa

“Gizarteak erasotuen izatearen beldurrez hezi gaitu”

idatzian eman zen, gizonezkoen argazkien oinean haien jardunari buruz hitz eginez, eta emakume hauen kasuan aldiriz, haien jazkerari erreferentzia eginez. Ekintza zuzenagoak ere eman izan ziren sare sozialen bidez, haietako batek zioen “ez zela beharrezkoa itxura desatsegin hura eramatea bizitza modu erreboluzionario batez bizitzeko” aipatutako CUPeko militanteari erreferentzia eginez. Mota honetako ekintzek emakumeen itxura zein estetikatik baliatuz, gutxieste pertsonal zein intelektuala bultzatzen dute, nahiz eta batzuek behar adina garrantzi ez eman.

Bi lerro aipatuko nituzke: beldurra eta kulpabilitatea. Bizi garen gizarteak erasotuen izatearen beldurrez hezitu gaitu emakumeak, biktima sentiaraziz, gauez etxera bakarrik joateko beldur sentitze hori ere normalizatuz. Eta emakume bat bortxatzen duten momentuan denongan eragin ez. Bestalde, errundutasuna dugu. Batetik, biolentzia matxista, emakumeek prebenitu beharreko zerbait bezala landu da, honek zenbait emakumeren errundutasun edo kulpabilitatea indartuz, emakumeok geure burua zalantzan jarriz, egoeraren errudunak gu garen galdetuaziz.


Nahiz eta gizarte mailan aurrera pausoak eman diren, ez da zilegi oraindik ere jaiotzean duzun sexuak sozialki honela baldintzatzea. Eta zuk Pello, zein eragin sozial nabari dituzu bai emakume zein gizonak gure erroletan mantenduarazten gaituztenak?



Pello Azpiroz

Ilepe Andrea! Espero dut ongi pasa izana ihoteetan. Nire ustetan, eragile sozial ugari ekartzen dute sexu bakoitzarekin lotzen diren arauak eta balioak barneratzea (generoa). Horietako bat familia da noski, izugarriko garrantzia du genero gizarteratzean. Jaiotzen garenetik barneratzen ditugu eredu hauek inkonozienteki. Jaiotzeaz geroztik, gurasoek ez gaituzte berdin tratatzen gure sexua bat baldin bada edo bestea. Neskengan adibidez gurasoak orokorrean genero “femeninoarekin” loturiko ezaugarri edo baloreak erakusten saiatzen dira, adibidez samurtasuna,

“Genero ezberdintasuna oraindik oso errotua dago”



sentimenduak gehiago adieraztea... Mutikengan berriz sentimenduak ezkatzea, dinamismoa edo aktibismoa... bultzatzen dira. Gurasoek uste dute rol hauek egoki bete ezkeren beraien seme-alabek bizitza erreza goa izango dutela “egokia” dena betetzen baitute. Gizarte eredu matxista honetako ereduak betetzen ez direnean askotan, “arraro” bezala gelditzen dira ume hauek eta ondorio desatseginak dituzte beraienengan. Eta hau ez da soilik umeengan gertatzen.


Beste eragile sozial bat eskola da, bertan genero barneratze horretan sakontzen da. Eta honekin lotuta daude lagunak. Kulturak eta komunikabideek ere izugarriko garrantzia dutela uste dut. Adibidez neskekin loturiko jostailuak edo arropak begiratu besterik ez dago generoen araberako banaketaz ohartzeko. Inguratzen gaituzten mezu askok mezu

matxistak dituzte barnean, kolonien irudiek, kotxeen iragarrikiek... Emakumea objektu bat bezala adierazten dute. “Maitasun erromantikoak” ere paper garrantzitsua betetzen duela uste dut (naranja erdia gabela eta beste erdia bilatu behar dugula, ezin gabela bakarrik zoriontsu izatera iritsi).

Gainera bi genero egoteak dakarren ondorioa da, genero bat bestearen gainean dagoenaren ustea. Nahiz eta aldatzen ari den (oso mantso) ikuspuntu matxista hau oraindik gure gizartean oso errotuta dagoen gauza bat da, errealitate bat da eta egoera hau aldatzeko ezinbestekotzat kontsideratzen dut hezkuntza.



Nork aldatzen du mundua?



- 8 -

Kaixo irakurleok, sasi idazlea nauzue.

Duela hilabete pare bat irakurri nuen, aldaketa handiak emateko gakoa taldean lan egitea dela. Honek, zer pentsatua eman zidan eta gizateriaren historiari errepaso txikia egitea erabaki nuen. Gizakiok beti izan dugu gure arteko harremanen beharra, hau ez da gauza berria, hasieran tribu eta talde txikitan elkartzen hasi ginen, ondoren herrixkak, herriak, bailarak, hiri txikiak... Eta hainbat liskar, guda, altxamendu, iraultza, gerrate... Eta gero, mundua gaur egun ezagutzen dugun moduan banatu egin zen.

Baina ez dira bizilekuan bakarrik aldatu, bizileku horiekin batera harreman pertsonalak ere aldatu egin dira. Duela urteak, (ez pentsa asko direnik) mundua handia zen, ez genekien zer ari zen

gertatzen Australian edo Toronton, ondoko herrian edo bizilagunaren etxean. Etxeko kontuak etxean geratzen ziren. Gaur egun, ordea, hau guztiz aldatu da, egunetik egunera mundua txikituz doa, munduko edozein txokotan edo-

“Gizakiok beti izan dugu gure arteko harremanen beharra”

nor zertan ari den jakin dezakegu, eta lasai, ez baduzu bila ibili nahi, sare sozialetan sartu eta berak kontatuko dizu. Honekin, ez naiz esaten ari sare sozialak txarrak direnik edo erabili behar ez direnik. Nik neuk erabiltzen ditut, baina guztia bezala hau ona da bere neurrian

(-Bai ama arrazoa eman dizut, hemen denen aurrean-).

Askotan entzuten dugu gaur egun harremanak asko hoztu direla eta kontaktu fisikoa galdu egin dela, gizarteak duen isolamenduaz kezkatutik gaude, baina txarra al da?

Historia aldatu duten pertsona asko hala bizi zirenen, beraien munduan murgildurik, “antisozial” eta “arraroak”. Ondo, ikus dezagun... “Antisoziala” gainerakoekin harremanak izateko zailtasunak dituen pertsona da, eta “arraro” hitza erabiltzen dugu gainontzekoez ezberdintzeko. Askotan tontotzat ere hartzen ditugu. Agian guztiz nahasturik gabiltza eta gu baino argiagoak balira? Agian hori da gizateriaren hurrengo eboluzioa, arrazoimena dugun animaliak gara, baina animalia arrunten moduan elkartzeko eta taldean onartuak izateko beharra daukagu, eta arrazoimena desagertu egiten da. Ez gara konturatzen baina pertsona “arraro” horiek dira gure bizitza aldatzen dutenak, gu gure munduan murgildurik bizi gara eta beraiek, beraien mundutik gure mundua aldatzen ari dira, eta gehiengotan arrazoimena erabiliz.

Oraindik ere ez baduzue oso argi, adibide gehiago emango dizkizuet: Albert Einstein, Michael Phelps, Beethoven, Bill Gates, Tim Burton... Bai pertsonaia guzti hauek, txikitan pertsona “arraroak” ziren, isilak eta beti bakarrik. Baina pertsona hauek mundua aldatu zuten, neurri batean edo bestean, alor batean edo bestean... Eta bakar bakarrik.

Honek, berriz ere talde lanera nakar, gakoa taldean lan egitea da. Baina zein da taldearen gakoa? Pertsona “arraro” bat ikusten duzun hurrengo aldian, utzi iezaiozu arraro izaten. Eta utzi zure buruari ere bere arrarokeriak izaten.



Dantza ekstatikoa

Kaixo irakurle. Garaiak aldatzen doaz. Denbora oso gutxian gauza asko aldatzen doaz, arrazoi batengatik edo bestearengatik zaharra utzi eta berriari heltzen diogu, kotxeetan, etxe tresnetan, arropetan... Nire kasuan, ohituretan ere horrela izaten ari da, eta ondorioz, askotan lanetan ere... Trikitixa bakarrik entzuten zuen Gaintzetar hura izatetik abiatu eta sekulako aukera pila eskaini dizkit munduak bertan bizitzeko eta ibiltzeko, bertsolaritza, plaza taldeak, rocka, batukada, musika elektronikoa... Kontua zera da, zer edo zeren aitzakian jendartean erlazionatzea, nor bere buruarekin erlazionatzeaz gainera noski.

Nire kasuan, erlazionatzeko modua izateaz gain, lanbide ere bihurtu direnez zenbait kultur jarduera, asko bizi eta hausnartu dut beraien inguruan. Joera bat ikusten dut azken urteetan: Gorputza gero eta motelago dugula kultur ekitaldietan, kontzertuetara ikusle moduan goaz, saioetara, zinemetara... Parrandetan dantzatzea ere ez da ohikoena... Hilabete bat hartuko bagenu, zenbat denbora dedikatzen diogu dantzatzeari? Ordu bat? Bi... Parrandetako zoriona tragoen bidez gehiago bilatzen dela iruditzen zait mugimenduz baino... eta horrek, osasuna kendu izan dit, eta umorea ere...

Musika jartzen ibili nintzen garaietan nekatu nintzen musika jarri eta gutxik dantzatzeaz, edo betiko erara dantzatzeaz (bakarrik zortziko, mexikana...), musika “zeoze egoteko” bakarrik jartzeaz.... Dantza librea lantzen ari naitzen honetan, ohartu naiz, nire burutik hasita, gero eta jende gehiago dagoela dantza egin nahi duena, bere modura, eta noski, gaueko ordu txikitara itxoin beharrik gabe eta mozkortuta egon gabe. Dj moduan jarraitu nahi nuenez eta horrelako jendearentzat musika jarri, mundu guztian oso bizirik dagoen



modu bat lantzen hasi naiz: *Ecstatic dance* edo dantza ekstatikoa.

Dantzaldi mota honek hiru arau nagusi ditu: Ezin da hitz egin (komunikazio ez berbalari leku uzteko), ezin da sustantziarik hartu (norbere sentipenekin egoteko) eta errespetua, nork bere buruari, besteei eta inguruari. Dantzaldiaren beraren aurretik beroketa gidatu bat egiten da, pertsonak pixka bat egoeran jartzeko, haien arreta bideratzeko, jokoak elkarrekin harremanetan jartzeko... egunaren eta nahiaren arabera. Ondoren dantzaldia, bi ordu baina gutxiago irauten dituen.

“Ekstatikoak mugitzeko proposamen aukera guztiak jasotzen ditu”

Dantzaldia, bost erritmoetan oinarrituta dago. Bizi ikuspegi bat da hau, esaten duena gizakiak bere bizitzan bost erritmo nagusi dituela: *Fluido*, mugimendu jarrai eta lotua; *stacatto*, mugimendu laukiago eta azkarragoa; *kaos*, ia kontrola galtzen duen mugimendua;

lirico, beste guztietatik duen mugimendua eta *quietud*, ia ia geldirik egon arte, baina taupada dagoen bitartean, ezer ez da gelditasuna... *Ecstatic dance*-an, bost erritmoetatik pasatzen den musika jartzen da, orduan, mugitzeko proposamen aukera guztiak jasotzen ditu dantzariak eta nolabait bere egoera osatzen du, hau da, kaosari aukera ematen dio, edo fluidoari, edo... Sortzaileek diote erritmo guztietatik pasatzeak gizakiaren osatze ziorionsua dakarrela, ekstasia.

Saio mordoxka bat egin ditugu jada Iruñeko Jazar sormen artistikoko laborategian. Erantzuna primerakoa izaten ari da. 20-30 pertsona elkartzen gara oraingo, nik egiten dut beroketa eta musika saioa. Sekulako esperientzia izaten ari da, ederra da dantzatu nahi duen jendearentzat musika jartzea, ederra da bizitzea pozik egoteko, gure buruarekin eta giro jatorrarekin nahikoa dela. Asmoa egiten jarraitzea da, ikasteko eta jendeak frogatzea. Gizarte osasuntsuak aisialdi osasuntsuak behar dituelako, eta gero geroakoak. Gonbidatuta zaude noski!



Plazaola kiroldegia beteta Oneka marrazoaren ikuskitzunean

- 10 -



Ene Kantak taldeak orain arteko abestietako batzuk bildu ditu Oneka marrazoaren antzezlanetan. Taularatzeaz gain, urriaren 3an ikuskizunaren dvd-a grabatu zuten Barañaingo auditorioan eta proiektu berri horrekin irabazita-koen zati bat Mailope Aldizkariari emango diote. 550 pertsona inguru hurbildu ziren joan den hilean Lekunberriko Plazaola kiroldegian eskaintako emanaldia ikustera. Nerea Urbizu lekunberriarra Ene Kantak taldeko kideetako bat da.

Nondik eta noiz sortu zen Oneka marrazoaren abenturak taula gainera eramateko ideia?

Urkok duela hiru bat urte antzerkitxo bat egin zuen, gure lehen diskako kantuei beste modu batera probetxua atera nahi zuelako, eta antzerkia aitzaki hartuta, ipuin baten bitartez bertan erabili zituen. Oneka marrazoa bigarren antzerkitxoa da, eta gauza bera egingen du: Ene Kantaken abestiak erabiliz isto-

rio bat kontatu. Dagoeneko 15 hilabete pasa dira Oneka marrazoa jaio zenetik!

Eta DVD-arena?

Dvd-arena Urkoren ideia izan zen ere! Ilusioa egiten zion berak sortutako antzerkia grabatzeak, azken finean hori lortzeko denbora, gogoia eta lan handia egin behar da eta hori islatzeko modu bat da.

Ikuskizun horretan orain arteko lan ezberdinetan bildutako abestiak eskaintzen dituzue baina barne istorio baten bidez ezta?

Hori da, gidoian gure kantak tartekatzen ditugu. Esan daiteke ipuinak abesti horiek erabiltzeko gidoia daukala.

Zergatik erabaki zenuten Mailoperi eskaintzea?

Gure proiektuak beti euskaraz eta euskararen alde lan egiten duten elkarreentzat izan ohi dira (Sortzen, Nafarroako Bertsozale Elkarte eta Euskalerria Irratia hurrenez hurren). Orain arte abestiak egin izan ditugu, musika, baina antzerkirik ez dugu inoiz grabatu. Egitasmo hau berria izanik ez genekien nolako harrera izan behar zuen jendar-tean. Horregatik oraingoan lortu genezakeen dirua elkarre edo talde txikiago

batentzat izatea pentsatu genuen. Gainera, Mailoperen 25. urteurrenerako opari polita izan zitekeen... Laguntza ekonomikoa ematea lortuko ez bagenu, ba hortxe dago sinbolikoa.

Nortzuk hartzen dute parte ikuskizunean?

Urko Oskoz, Oiane Yarza, Xabi Akerreta, Aitziber Fernandez eta Uxue Rodriguez dabilta taula gainean. Horrez gain, argietakoa, soinu teknikaria eta harremantakoa daude.

DVDaren grabaketa Barañaingo Auditorioan egin zenuten. Zer moduz joan zen?

Oso ongi. Aretoa lepo eta giro bikaina. Han dvd-a erreserbatzeko aukera eman genuen eta 80 inguruk ikusi aurretik erosi zuten. Oso-osoz pozik!

Geroztik zenbat emanaldi eskaini dituzue?

Hamar inguru. Dvd-a argitaratu genuenetik asko nabaritu dugu eta leku ezberdinetatik deitu digute.

Lekunberrin ere izan zineten eta kiroldegia beteta...

Bai, hainbeste jende ezagun eta ezezagun emanaldirako herrian ikustea, be-

reziki niretzat oso betegarria izan zen. Oso ongi joan zen, eta umeek oso ongi erantzun zuten. Pentsa, Urkok "herri honetan" asko dantzatzen zutela eta oso ongi egiten zutela esan zuen. [Kar-kar-kar].

DVD-ak zer moduzko harrera izan du? Durangoko azokan ere izan zineten...

Bagenekien aurreko diskako kantuek gustagarriak zirela eta erraz sar zitezkeela antzerkia ere. Beraz, momentuz ongi, baina goiz xamar da zehazki jakiteko. Egia da dendatan ere ikusten dela eta jendeak eskatzen duela. Beraz, seinale ona! Durangon bigarren urtez egon gara eta nahiz eta egunak luzeak egin, joateak merezi du. Ezagutzera emateko beste leku bat da.

"Ole-Olentzero" abestia Eguberri hauetako abestia izan da Euskal Herri osoan. Ze iruditzen zaizue?

Ba abestiak lau urte ditu... laz ETB-k baimenik eskatu gabe telebistan erabili zuen kantua eta orduan ere nabaritu genuen interneten ohi baino bisita gehiago genituela. Aurten Nafar Telebistak (baimenarekin) erabili du eta hortxe ospea-edo hartzearen arrazoia... Hori nire irakurketa da, baina auskalo!



“Me reto 100 días” programa Lekunberrin

Urriko alean elkarrizketatu genituen Maddi Sotilek eta Txitxi Orbegozok azaldu ziguten “Me reto 100 días” programaren nondik norakoak. Bizitza osasuntsu eta aktibo baten bitartez norberaren bertsiorik onena lortzen laguntzeko garapen pertsonalean, gorputzean eta elikaduran oinarritzen den 100 eguneko programa bat da.

Otsailetik maiatzera bitarte Lekunberrin modu presentzialean egiteko aukera izanen da. Otsailaren 15ean hasi eta maiatzaren 27ra bitarte Lekunberriko trinketean izanen da, astelehenetik ostiralera bitarte goizeko 10:00etatik 11:00etara edo 11:00etatik 12:00etara.

30-35 minutuz prestatutako monitoreekin ariketa fisikoak egingo dira eta ondoren 20 minutuz bidaia eta elikadura koadernoak landuko dira, azalpenak eman eta zalantzak argitu ahal izateko. Gainera Maddi Sotil nutrizionistaren jarraipena ere eskainiko zaie parte-hartzaileei.

Programa hiru koadernotan oinarritzen da eta horiek jarraituz norberak bere kabuz egin dezake eta aurki online egiteko aukera ere izanen da. Taldea ateratzeko gutxieneko 15 partaide beharko dira.

Animatu eta eman izena orain mereto@ysiyo.com e-postaren bitartez edo 696 395 211 telefono zenbakian.

Otsailaren 12an, Mailope Aldizkariko batzar irekia

Urteroko batzar irekia eginen da hurrengo otsailaren 12an, iluntzeko 19:00etan Beteluko Indianoetxean. Bertan hainbat gai landuko dira: Zuzendaritza taldearen osaketa, kontuen balantzea eta aurrekontuak, bazkide kanpaina, berritasunak eta ideia berrien proposamena...

Animatu eta parte hartu zure herri aldizkarian!

Mailope lasterka txikia Lekunberrin

Ibarberri eskolako sei ikasleren ekimenez Mailope lasterka txikia antolatu dute otsailaren 22rako. Lorea Huarte, Maddi Huarte, Beretxu Lavin, Amaia Saralegi, Ione Alsua eta Iugatzi Zelaia hamaika eta hamabi urteko Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ikasleak dira. Beretxu: “Gutako batzuk Baraibartik Atallura egin zen Mailope lasterkan parte hartu genuen eta pena eman zigun Larraungo gaztetxo askok parte hartu ez izanak. Horregatik txikienek ere parte hartzeko moduko lasterketa bat egitea bururatu zitzaigun”. Lasterketa otsailaren 22an izanen da Lekunberrin barna. Ibarberrin izanen du hasiera arratsaldeko 16:50etan. Dagoeneko 50 metroko txartelak saltzen hasi dira 2 euroren truke, astelehen arratsaldeetan Ibarberriko atarian.



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-
LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA

urrutia
enea

etxeko hestekiak

LEKUNBERRI

OTXOTORENA
okindegia

ARRIBE

ADIII TLF BERRIA:
948 51 30 32

panaderia okindegia RIOJA

GALBURU

Alde Zaharra, 50 - 21070 LEKUNBERRI (Nafarroa)

Tel: 948 50 40 42 - 609 720 313

60 metro leun 7,55 segundotan



Hodei Otegi horiz, artxiboko argazki batean .

Abenduaren 23an Anoetako estadioan lortu zuen Hodei Otegi lekunberriarrak Espainia mailan lehen aldiz korrika egiteko aukera. 60 metro leuneko proba gutxieneko denboran egitea lortu zuen, 7,55 segundotan. Horri esker, martxoaren 12 eta 13an Oviedon izanen da kadeteen kategorian lehiatzen, Pista Estaliko Espainiako Txapelketan.

Zenbat urterekin hasi zinen korrika?

Bederatzi urterekin hasi nintzen entrenatzen. Baina futboleko ere aritzen nintzen eta asteburuetan futboleko partiduetara joatea nahiago nuen.

Hasieran ze talderekin entrenatzen zenuen?

Elostalderekin. Han ama izaten nuen entrenatzaile, Olatz Gonzalez. Gero handik bi urtera GANA taldearekin hasi nintzen Iruñean, Nafarroako Atletismo Taldearekin.

Txapelketetan noiz hasi zinen parte hartzen?

2013an Burlatan alebinen kategorian

aurkeztu nintzen lehen aldiz eta 60 metroko proba irabazi eta luzera proban finalera pasa nintzen.

Geroztik zeintzuk izan dira zure lorpenak?

Infantilen lehenengo urtean, 80 metroko proba irabazi nuen eta 150 metroko proban bigarren. Eta iaz, infantilen bigarren urtean lehenengo postua eskuratu nuen egindako proba guztietan, 150-eko proban, pisu jaurtiketan, luzerako proban, 80 metrokoan eta lehenengo ere proba konbinatuetan.

Proba ezberdinen artean zein duzu gustukoena?

Atletismoan, abiadura, iraupena, jaurtiketa ezberdinak, saltoak etab. lantzen dira. Ni abiadurako probetan naiz onena.

Eta hori lantzeko nola zer egiten duzu?

Entrenamenduetan, serieak egiten di-

tut normalean eta gero teknika hobetzeko ariketa ezberdinak. Astean hiru egunez entrenatzen dut. Astean bitan Lekunberriko kiroldegian edo futbol zelaietan amaren laguntzarekin eta astean behin Larrabiden bertako entrenatzailearekin.

Zein da okerren daramazun proba?

Jabalina jaurtiketa. Txarra naiz horretan. Erraza ematen du baina teknika behar da.

Zer moduzko giroa egoten da txapelketetan?

Oso ona, lehia egon arren, giro ona egoten da parte-hartzaileen artean. Nik txartel nazionala atera nuen Nafarroatik kanpora ere lehiatu ahal izateko, bestela askotan jende berdinarekin egiten nuen korrika.

Anoetan jokaturakoa, ze txapelketa izan zen?

Parte-hartze libreko 60 metroko proba izan zen eta Espainian lehiatu ahal izateko gutxieneko denbora lortu nuen, 7,55 segundo.

Eta orain Oviedora...

Bai. Han ez dut uste irabaztea lortuko dudarik, denak ni baino urtebete zaharragoak izango dira, ni aurten hasi bainaiz kadeteetan. Nafarroako errekorra 7,22 segundotan dago 60 metroko proban. Hala ere, horren aurretik, otsailaren 13an Zaragozan jokatu den autonomia erkidego ezberdinen arteko lehiaketan Nafarroa ordezkatzeko sailkatua izan naiz eta hara joan behariko dugu lehendabizi.

 **ALIPROX**
Lekunberri
janaridenda
hamabostaldiro eskaintza bereziak

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA
 **696 658 288**
LEKUNBERRI

 **SUAKONTROL**
LEKUNBERRI
Suaren kontrako plakak
Oztegin kalea 25,
Lekunberri
948 60 48 96 (Tel.)
948 60 45 16 (Faxa)
suakontrol@grena.es
www.grena.es

IORTIA LEKUNBERRI
Juanjo Gaite García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591
Lekunberri: 948 604 804 - 618 818 005
Altsatsu: 948 467 603 - 667 66 17 69
ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI



“Aldaketa soziala posible da laguntza ematen badiegu”

*Gizarte langilea da Arantxa Erbiti eta Altsasu, Olazti eta Ziardiako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean dabil la-
nean azken hamalau urte
hauetan.*

Etxalekuarra da berez, baina jada hamahiru bat urte daramatza Betelun bizitzen. Arantxa Erbiti Altsasu, Olazti eta Ziardiako Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateko koordinatzaile izateaz gainera, babestutako enplegu programaz eta gizarteratzeko programaz arduratzen da. Azken programa horren baitan Erkuden Imaz gizarte hezitzailearekin batera sortutako proiektua orain gutxi saritu berri dute “Aprendamos a cuidarnos para poder cuidar”.

Altsasuko ijito-portugaldarren kolektiboko emakumezkoekin aurrera eramaten ari diren egitasmo bat da eta joan den abenduan “Tomás y Lydia Recari García” Fundazioak Nafarroako Gobernuarekin batera zortzigarren urtez antolatzen duen Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Kalitatearen Lehiaketan saritua izan zen.

Proiektu horren barruan garbitasunarekin erlazionatutako ohiturak, elikadura, osasuna eta gizarte harremanak landu dituzte hitzaldi eta ikastaroen bidez. Hori guztia ez dute ordea bakarrik lortu, emakume portugaldarrak eurak izan dira lehenik pausoa emateko prest agertu direnak eta bestalde, elkarlanean oinarritutako proiektua izan da. Osasun zerbitzuko langileak, immigrazio teknikariak, psikologa batek eta kiroldegiko langileek parte hartu dute.

Erabiltzaileei arretan praktika onak sustatzeagatik saritu dute egindako lana.

*“Momentu honetan be-
raiek aldaketarako prest
daude”*

Joan den abenduaren 11n Nafarroako Jauregian egin zen ekitaldian jaso zuen Arantxak berak 1.500 euroko saria. 2014an abiarazi zuten egitasmoarekin lanean jarraitzeko lagungarria izango zaie jasotako laguntza ekonomikoa eta aitortza, oraindik asko baitago egiteke.

Nola sortu zenuten proiektu hau?

Gizarteratzeko programaren barruan sortutako proiektua da. Guk urte asko daramatzagu ijito-portugaldarren komunitatearekin lanean, ikastaro solte ezberdinak antolatzen genituen tarte eta akordio ezberdinak egiten genituen. Baina konturatu ginen ikastaroetatik haratago ezer gutxi lortzen genuela. Horregatik, orain dela hiru urte beraiekin elkartzen hasi ginen euren beharrak ezagutzeko eta etorkizunari begira euren burua nola ikusten zuten ezagutzeko. Batez ere metodologia izan da aldatu duguna eta asmatu egin dugu. Gainera momentu honetan beraiek prest daude aldatzen hasteko, konturatu dira euren egoera aldatu behar dutela.

Ijito-portugaldarren komunitateko emakumezkoei dago zuzenduta.

Bai, nahiz eta izandako arrakasta ikusirik gizonezkoek ere parte hartzeko gogoia erakutsi duten eta ikasturte honetan eurekin ere lan egiteko asmoa dugun. Hala ere, esan beharra dago guk proiektuan ijito-portugaldar bezala izendatzen baditugu ere, gehienak ez dira ijitoak, portugaldarrak baino ez. Eta horietatik gehienak jada Altsasun bertan jaiotakoak. Baina Altsasura etorritako aurreko belaunaldiko sentimendua oso barneratua daukate. Eta guk komunitate horrek dituen



ezaugarri fisikoengatik ijitoekin identifikatzen ditugu portugaldarrekin baino gehiago.

Gehienak Altsasuko auzo berean bizi dira gainera...

Bai. Orain errolda bat prestatzen gabilta zehazki jakiteko zenbat lagunek osatzen duten komunitate hori, baina

100 lagun inguru dira, emakumezkoak, gizonezkoak eta haurrak batuta. Emakumezko zaharrenak 80 urte ditu eta bera da Altsasura etorri zen belaunaldi horretako lehenengoetakoak. Normalean gazteak behin ezkontzen direnean Altsasun bertan gelditzen dira bizitzen eta etxebizitza eraikin berdinetan aurkitzen saiatzen dira, nahiz



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



**BACALAO
ELKANO
S.L.**

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com



eta pixkanaka hasiak diren herrian sakabanatzen.

Soniaren laguntza ezinbestekoa izan duzue bidea irekitzeko ezta?

Bai, Soniak lana bilatzeko laguntza eske etorri zitzaigun, baina oso lodia zegoenez lana aurkitzeko ezinbestekoa iruditzen zitzaigun lehenik argaltzea. Osasun etxean dieta bat jarri zioten eta Erkuden hezitzailea berarekin paseatzera joaten zen. Handik gutxira, beste bost neska hasi ziren paseatzen. Soniaren zubi lana oso lagungarria izan da guk nondik jo behar genuen jakiteko eta gainontzeko emakumeak parte hartzera hurbiltzeko.

Alor asko biltzen dituen proiektua da...

Bai. Orokorrean osasun arazo larriak dituzte gehienek, obesitatea, diabetesa, kolesterola... Ez dituzte elikadura ohitura onak, patatak eta haragia jaten dute ia egunero. Osasun Etxekoekin bildu ginen eta oso ideia ona iruditu

zitzaien arlo horretan zerbait egitea elikadura osasuntsua sustatzeko. Gainera laguntzeko prest ere agertu ziren eta bi hitzaldi antolatu genituen helduen erizainarekin bat eta haurren erizainarekin bestea. Osasun etxean edo gure bulegoan beharrean hitzaldiak euren lokalean egin genituen eta hori ere positiboa izan zen.

Kirola ere landu duzue...

Ondoren ariketa fisiko lantzeko eta psikologikoki ere norbera bere buruarekin ongi sentitzeko kirola ere landu nahi genuen eta kiroldegiko langileen laguntzarekin igeriketa ikastaroak antolatu genituen eta 23 pertsonen parte hartu zuten. Horrek aukera eman zigun igerilekuko arauak zeintzuk diren erakusteko eta higieena eta hilekoaren gaia lantzeko.

Eta zer moduzko esperientzia izan da hori beraiantzat?

Batzuentzat igerileku batean sartzen

ziren lehen aldia zen eta bainujantzia jantzea ere erronka bat izan zen beraiantzat. Hasieran neoprenozko jantziekin edo kamisetarekin sartu nahi zuten baina gero berehala eman zuten pausoa eta oso gustora. Pentsa geroztik hiru lagun egin dira bazkide. Guztira igeriketako sei saio egin genituen eta aurten Aquagym egiten gabilta. Niretzako ere oso pozgarria izan zen igerilekuan nola gozatzen zuten ikusi nuen lehen aldia. Orain igeriketako saioak euren buruari denbora eskaintzeko momentua bihurtu da.

Eta hirugarren arlo bat ere badago...

Bai. Gizarte Zerbitzuko psikologarekin ere zenbait saio egin ditugu elkarrekin modu positiboan harremantzen ikasi dezaten. Oihuka hitz egiteko ohitura dute eta elkarri kritikak egiten dizkionte gauza onak esan beharrean. Aldatu beharreko ohiturak dira, eta euren seme-alabekin dituzten harremani dagokienean ere erakutsi beharreko gauza asko daude.

Zein egoera ekonomikotan bizi dira?

Oso egoera ekonomiko larriak bizi dituzte askok. Badira babestutako programaren bidez edo garbiketari lan egiten duten gutxi batzuk, baina emakumezko gehienek ez dute etxetik kanpo lanik egiten. Eta gizonetako batzuk Sakanako mankomunitatearentzako zabor biltzaile lanetan aritzen dira. Poliki-poliki badoaz konturatzen aldatu egin behar dutela euren egoera. Gure ustez aldaketa soziala posible da laguntza ematen badiegu. Batzuetan ez da izaten nahi ez dutelako, laguntzarik ez dutelako edo nola egin ez dakitelako baizik.

TOKI ~ ALAI
SAGARDOTEGIA

948 504 057 ☎
647 444 678 📞
650 450 161 📞

info@sidreriatokei-alai.com 📧




EKAINERA ARTE ZABALIK, OSTIRAL GAUËTIK
IGANDE EGUERDIRA ETA JAI EGUNETAN!!

www.sidreriatokei-alai.com

Txooooo!

JUANLUZENEA
SAGARDOTEGIA

MAIATZERA ARTE txotx denboraldia zabalik



948 604 571 | 680 652 183 | ODERITZ

Eta gainontzeko altsasuarrekin zer nolako harremana daukate?

Oso gutxi harremantzen dira gainontzeko herritarrekin. Haurrak eskolatik kanpo ez dira gehiegi harremantzen eta zenbait heldu josten ikasteko ikastarora edo helduen eskolara joaten dira baina... Batzuetan bazterturik sentitzen direla ere adierazi digute eta hori ere etorkizunean landu nahiko genukeen gai bat da. Askotan higiegi faltak edo janzkera desegokiek ere ez dute laguntzen. Etxeko oinetakoekin kalean ibiltzeak adibidez [Kar kar].

Kritikari jaso al duzue beste herritarren aldetik?

Bai, kritika edo kexa batzuk izan dira. Adibidez igerilekuan oihu egiteagatik... Altsasuarrentzat ere aldaketa bat da ijito-portugaldarrak igerilekuan ikustea. Baina gustatzen ez bazaie euren arazoa da. Fundamentuzko kritiken aurrean aldatzen saiatu gara, baina gainontzekoei ez diegu jaramonik egin.

Eta nola finantzatu duzue orain arteko proiektua?

Nafarroko Gobernuak osasun publikoaren arloan egiten duen dirulaguntza deialdien bidez lortu dugu kiroldegiko ikastaroak ordaintzea eta gainontzeko saioak bolondresekin egindakoak izan dira.

Nolatan aurkeztu zenuten zuen proiektua sariketara?

Etxarri nahiz Irurtzungo Gizarte Zerbitzuetako lankideek 23 emakumezko horiek igerilekura joatea lortu genuela ikustean, egiten ari ginen lanagatik zoriontzen gintuzten, baita Iruñeko Sekretariado Gitano Erakundetik ere. Horrek sariketara aurkeztera animatu

gintuen, baina besterik gabe aurkeztu genuen, ez genuen inola ere espero. Guretzako pozgarria izan zen. Sariketa horretara gainera normalean aurkezten diren proiektu gehienak erakunde pribatuak izaten dira, eta erakunde publikoetan ere lan egiten dugula erakusten du honek. Gainera, komunitate hori gizarteratzea lortuz gero, denontzat izango da onuragarri, etorkizunean diru-laguntzarik ez dutelako behar izango aurrera egiteko.

Eta komunitateko emakumeek nola hartu zuten sariaren berri?

Oso ongi, sorpresaz hartu zuten, baina izugarri pozik. Hedabideetan ateratzea beraientzat oso pozgarria izan zen, garrantzitsuak sentitu ziren eta Soniari eta guri eskertu egin ziguten egindako ahalegina.

Etorkizunera begira zein beste ekintza egiteko asmoa duzue?

Hezkuntzaren arloan lan egin nahi dugu. Gehienek ez dituzte ikasketak amaitzen. Altsasuko komunitate horretan ez dago inor DBH-ko ikasketak amaitu dituenik. Hori ere landu nahiko

genuke, bai seme-alabekin eta baita gurasoekin ere. Adibidez, haurrak ez daude ohituta etxeko lanak egitera edo gurasoak ez dira irakasleekin biltzen behar-beharrezkoa ez bada... Bestetik sexualitatea eta prebentzioa ere landu nahiko genuke.

Gizonezkoekin ere hasi zarete...

Bai. Beraiek izan ziren kiroldegian ikastaro bat egin nahi zutela esan zigutenak eta beraiekin ere aquagym ikastaroa egiten gabiltza. Horrez gain, erretzeari uzteko saioak, edo lana bilatu ahal izateko euskara ikasteko saioak egin nahi ditugu eta horretarako gizonezkoekin beste talde bat osatuko dugu.

Beraz, oraindik lan handia gelditzen zaizue.

Bai. Saria jaso izanak gauzak ongi egiten ari garela esan nahi du eta bide beretik jarraitu behar dugula. Baina poliki-poliki ari gara eta aurrera-pausuak beraiek nahi dutelako ematen ari gara. Konfiantzazko giroa sortu dugu taldean eta baliteke belaunaldi hauekin lortzen ez ditugun gauza horiek euren haurrekin lortzea.



Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera

Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)

948 504 077 · 639 778 851 · aitziberalf@hotmail.com

ETXEZ ETXeko EGUR SALMENTA

URTE OSOAN ZEHAR

EGURRA
EXPRES

☎ 635 90 91 95

✉ promanburillo@gmail.com

Erbiti, Basaburua

Gure egurraren kalitatea eta prezioak ikusten dituzunean kea aterako diezu



Hasi dira herriz herriko inauteriak

Errege bezperaren hurrengo asteburuan ospatu zituzten uitziarrek herriko inauteriak. Larunbatean, elkartean bildu ziren bazkaltzera eta afaltzera eta ondoren parranda egin zuten askok goizaldera arte. Baina igande eguerdian berriz ere elkartu egin ziren etxez etxe urteroko puska biltza egiteko. Pake Otermin eta Imanol Soroa izan ziren aurtengo maiordomo lanak egin zituztenak.

Lekunberrin ere dagoeneko ospatu dituzte inauteriak. Ilbeltzeko azkeneko ostiralean txikienek eskolan bertan egindako mozorroen ospakizunarekin ekin zioten aurtengoei. Baina gainontzeko herritarrek larunbatean Kattagorriin egin zuten hamaiketakoarekin hasi zuten festa. Herrian barna erronda egin ondoren, mozorro lehiaketa izan zen eta mendebaldeko cowboy-ez jantzi zen koadrila batek irabazi zuen.

Argazkiak: J.A.Garaikoetxea.





Hostal Betelu

Eguneko menua,
karta, plater
konbinatuak eta pizza
goxoak

Etorri eta
on egin!

Erreserbak:
948513026
618557889

BETELU
PNEUMATIKOAK

TAILER MUGIKORRA

NEUMATIKO ALDAKETA
ZULATZEEN KONPONKETA

Vicente Iriarte
T. 646 474 166
www.neumaticosbetelu.es

LARRAUN GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ
MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA

Gruas y Talleres LARRAUN s.l.

Lekunberriko industriagunea,
21. nabea
31870 Lekunberri
Nafarroa

Mugikorra: 626 494 356
Telefonoa: 948 507 229
Faxa: 948 507 281
gtlarraun@gmail.com



Zoriondu itzazu zure lagunak edo senitartekoak
Mailope aldizkariaren bitartez!

KuxKuxean

Julen Torrado Beraza

Otsailaren 5ean, 12 Mila zorion zure egunean, ikaragarri ongi pasa eta jaso musu handi bana etxekoan partez!!!! Manex, aita eta ama.



Urtzi eta Unai Argiñarena

Urtzik 3 urte bete zituen otsailaren 5ean eta Unaik urte bat egin zuen urtarilaren 16an. Zorionak eta muxu haundi bana etxekoan partez..



Itxaso Oreja Altuna

Otsailak 1. Zorionak etxeko sorgin txikiari, azkar pasa da lehen urtea!! Muxu haundi bat Aita, Ama, Egoitz eta Enekoren partez!!



Oier Goñi (Otsailak 1, 13 urte) eta Aritz Martinikorena (Otsailak 8, 5 urte)

Zorionak bikote!!! Ongi ongi pasa zuen eguna eta muxu haundi bat etxekoan partez? ;)



Lekunberriko Nere Zabaleta Olasagarreri, otsailaren 11n urteak betetzen dituelako. Zorionak eta 10 muxu haundi. Etxekoak maitasunez.



Aintzane Eskamendi

Otsailak 5, 6 urte. Zorionak gure prinzesari!! Etxekoan partez.



Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.

Egin zaitetz bazkide!!

BIDEGOXO JATETXEA

Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 576
info@bidegoxo.com

Martitxonea
sagardotegia

Inaxio Begiristain



948604607

Aldatz Nafarroa

Nola Bihurtu Zure Bizikleta Bizikleta Elektriko?

Heldu den otsailaren 19an, Amaralar elkarteak tailer bat antolatu du ikasteko nola bihurtu gure bizikleta bizikleta elektriko batean.

Denok ezagutzen ditugu bizikleten onurak: bizikletak ez du kutsadurarik sortzen, ezta zaratarik ere; osasunarentzat primerakoa da eta leku gutxi behar du. Hala ere, zoritxarrez, askotan pentsatzen dugu bizikleta haurren edo kirolarien kontua baino ez dela, edo bakarrik toki zelaietan erabil daitekeela. Larraun eta Araitzeko bide aldapatsuak direla eta, bizikleta nahi baino gutxiago erabiltzen dugu.

Bizikleta elektrikoa alternatiba on bat izan daiteke. Erraza da gidatzeko. Helduentzat ere aproposa da, ahalegin gutxiagorekin, abiadura handiagoa hartu dezakegulako eta aldapak oztopo izateari uzten diolako. Bai, lehen esan bezala, bizikleta elektrikoa alternatiba on eta merke bat izan daiteke kotxea gutxiago erabil dezagun gure joan-etorrietan.

Orain, Amaralar Elkarteak antolatutako tailer honetan bizikleta elektrikoa gertutik ezagutu eta probatzeko aukera izanen dugu. Aldi berean, erakutsiko dizuegu nola bihurtu elektriko gure bizikleta, berria erosi gabe eta diru dexente aurreztuz.

Heldu den martxoaren 11n, arratsaldeko 19,00etan, Lekunberriko Udal aretoan espero zaitugu.

Biziz bizi Araitz eta Larraunen barrena.

Informazio gehiago: amaralarelkartea@gmail.com



Lagunasesoria S.L.
Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
 lagunasesoria@terra.es

SAN MIGUEL
 gasolindegia

Xabier Garmendia 629 350 099
 Arribe-Atallu

German Lasarte
ARBEONDO HARATEGIA
 Aralar kalea 9
 Lekunberri
 948504157

OKM
ABOKATUAK
 Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua
 Arretxea, 1º, Alii. Tfnoa: 609 130 555

Hasi da Bardoak ekimenaren lehen fasea

Ilbeltzaren 22an eman zioten hasiera aurtengo Bardoak ekimenari eta martxoaren 19an Etxarri Aranatzeko jokatu den finalarekin amaituko da.

Guztira 23 saio izanen dira eta inoiz baino parte-hartzaile gehiago elkartuko dira, 121 lagun, horietatik 71 bertsolari.

Bi urtez behin antolatzen den taldekako ekimena da. 16 taldek jokatu dute lehen fasea bost ligaxkatan banaturik. Bigarren fasean berriz, sei taldek jokatu dute eta finalean hiruk.

Lehenengo bost saioak dagoeneko jokatu dituzte, Lizarran, Donamarian, Barañainen, Beran eta Altsasun.

Gure eskualdean osatutako taldeak, "(Larraun da Araitz) Bi dozena" Beran aritu zen Larungo antenak taldearekin. Joana Ziganda, Arkaitz Goikoetxea, Aitor Irastortza, Luis Mari Larreta, Oskar Estanga, Aritz Saragueta eta Juan Mari Irastortzak osatzen dute hemengo taldea. Afari-merienda baten ondotik izan zen saioa eta 40 entzule inguru bildu ziren. Azkenean beratarrentzat izan zen puntua.

Hurrengo saioa Alliko ostatuan izanen dute. Otsailaren 5ean, iluntzeko 20:00etan. Bertan Iruñeko "Xirristi Drimtim" taldearekin (Martin Azpiroz, Mikel Xabier Juaniz, Oscar Sanz de Acedo eta Asier Saragueta) arituko dira. 5 euroko sarrera egonen da eta han bertan salduko dira.

Informazio eguneratua: www.bertsozale.eus webgunean eta saioetako bideoak www.bertsoa.eus atarian ikusgai.




CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
 ZURGINTZA OROKORRA
 INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
 Telefonoa eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

OGI-BERRI ALTZA
 Aralar kalea, 41
 Lekunberri

OGI BERRI
 OKIN ARTISAUAK 948604884

**AURRERA
 TABERNA
 ARALAR, 15
 948 60 47 24**

**TAXI
 SOROA
 609 168 217
 Bederatzi plaza**

Toki-Alai Sagardotegian ireki da aurtengo sagardo denboraldia



Oinatz Bengoetxea pilotariak ireki zuen, joan den urtarrilaren 15ean, aurtengo Txotx denboraldia, bera izan baitzen sagardoa dastatzen lehena. Bost sagardotegik osatzen dute Nafarroako Sagardotegien Elkarteak, Lekunberriko Toki-Alai, Lekarozko Larraldeak, Lesakako Lindurrenborda, Berueteko Behetxonea eta Aldazko Martitxonea. Dagoeneko bederatzigarren edizioa izan da. Guztien artean, 200.000 litro inguru kupeleratu dituzte.

Estreinaldian 80 pertsona bildu ziren, herritar batzuekin batera pertsona ezagunak eta gonbidatu bereziak ekartu ziren: Abel Barriola, Arturo Arbizu eta Iñaki Ondaorena pilotariak, Inaxio Perurena harri-jasotzailea, Donato eta Partxi Larretxea aizkolariak, Isabel Elizalde Nafarroako Gobernuako Landa Garapen, Ingurumen eta Tokiko Administrazio Departamentuko kontseilaria edo Maitena Ezkutari, Turismo eta Merkataritzako zuzendaria.

Sagardogileen arabera, udazken honetan izandako tenperatura epelari esker, inoiz baina lehenago hartzitu da eta pozik daude emaitzarekin.

Maiatzaren amaiera arte luzatuko da sagardotegi denboraldia. Animatu eta hurbildu zaitezte eskualdean ditugun sagardotegietara.

- 23 -



asegurogintza
aseguru aholkulariak
Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da

Telefona: 943652220. asegurogintza@aseguroak.net
Lizardi Olerkaria 1, 20400 Tolosa

CONSTRUCCIONES GAÑARBE ERAIKUNTZAK S.L.

Etxebizitzaren eraikuntza eta errehabilitazioa

948 504 351 - 616 457 540
construccionesganarbe@gmail.com
Oztegin kalea 2, Lekunberri

Tenperatura baxuekin ere korrika



Benjaminak (700 m)

Mutilak		Neskak	
1. Aitor Etxarren	3:36	1. Maider Olano	3:45
2. Igor Nazabal	3:42	2. Nahaine Ijurko	3:54
3. Lander Arteaga	3:46	3. Iraide Satrustegi	3:56

Alebinak (1500 m)

Mutilak		Neskak	
1. Unax Olano	6:58	1. Aileen Aranburu	6:54
2. Iñigo Garmendia	7:00	2. Alix Artola	7:28
3. Unai Goñi	7:13	3. Eider Kouso	7:41

Infantilak (2000 m)

Mutilak		Neskak	
1. Unai Perez	10:27	1. Idoia Lizarraga	10:59
2. Eneko Rekalde	10:32	2. Nere Jauregi	11:03
3. Oier Goñi	10:50	3. Lune Laidalga	11:25

201 korrikalarik parte hartu zuten joan den urtarrilaren 17an egin zen Araitz-Beteluko XI. Herriarteko Krosean.

Raul Amatriain eta Sergio Roman izan ziren helmugaratzen lehenak, 25 minutu eta 14 segundotan iritsi ziren biak, baina Amatriaintzat izan zen lehen postua. Hauen atzetik Aitor Etxebeste beasaindarra sailkatu zen 26 minutu eta 15 segundoko denborarekin.

Emakumezkoetan, Inma Sainz (00:31:23), Rosa Talavera (00:31:32) eta Maialen Muñoz (00:31:56) izan ziren azkarrenak.

Haurren lasterketa proba nagusiaren aurretik egin zen. Urtetik urtera geroz eta gehiago dira kanpotik proba horretan parte hartzera etortzen diren gaztetxoak.

Horra hor, haurren probako sailkapenak eta eskualdeko korrikalarien denborak.

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20

Lekunberri
urzubi@hotmail.com

NEKAZARI, S.L.
Kubota
STIHL
ANTONIO CARRARO

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazaris@hotmail.com

AMAIRU BAR

ETXERKO PIZZAK,
KOPA BERGIZIAK
948504352

Kantina Rock 948 60 48 21
KANTINA
bokatak, platerak eta...musika.....

TAXILON Lontxo Otamendi Artola
661 202 249 (9 plaza)
E-posta: lotamendi5@gmail.com Atallu - Araitz



KADETEAK (3100 m)

Mutilak

1. Mikel Murua	10:47
2. Aitor Rekalde	10:49
3. Martin de Alava	11:20



DENBORA	IZENA	ABIZENAK	HERRIA
00:26:37	XABIER	SATRUSTEGI	BETELU
00:27:02	ANDER	ARRAZTIO	BETELU
00:28:24	ISAAC	ALVAREZ	LEKUNBERRI
00:29:18	MIKEL	DE CARLOS	LARRAUN
00:29:51	JUAN MARI	IRASTORZA	LEKUNBERRI
00:29:51	MIKEL	IJURKO	LEKUNBERRI
00:30:42	JOANES	REKALDE	BETELU
00:31:29	IÑAKI	ELIZALDE	BETELU
00:31:33	IMANOL	ESTANGA	BETELU
00:31:34	IÑIGO	GARMENDIA	BETELU
00:32:47	XANTI	GARMENDIA	BETELU
00:32:58	IMANOL	JAKA	LARRAUN
00:33:24	IBAI	SOROA	ARAITZ
00:33:32	IÑAKI	ALVAREZ	BETELU
00:33:50	IÑIGO	IRIBARREN	LEKUNBERRI
00:33:52	MADDI	SOTIL	BETELU
00:34:09	UNAI	IJURKO	UITZI
00:34:17	JAVIER	URTIAGA	BETELU
00:35:19	MIGUEL RAMON	OLANO	BETELU
00:35:26	XABIER	IGOA	ALDATZ
00:37:24	ANDER	ELIZALDE	BETELU
00:38:12	AITOR	GOIKOETXEA	BETELU
00:38:23	MIKEL	OTAMENDI	BETELU
00:39:09	ION	ELORDI	ARAITZ
00:39:09	JONE	SARASOLA	ARAITZ
00:39:11	ARANTZA	MAULEON	ALDATZ
00:39:22	MARIA TERESA	BASTERRETXE	ATALLU
00:39:53	IOSU	ESTANGA	BETELU
00:40:23	MARKEL	IRIARTE	BETELU
00:40:28	JUAN MARTIN	MARTINIKORENA	LEKUNBERRI
00:40:54	UNAI	LIZARRAGA	ALDATZ
00:41:49	JUAN MIGUEL	ZUBILLAGA	BETELU
00:41:49	ASIER	ELIZALDE	BETELU
00:41:49	KIKO	ESKAMENDI	BETELU
00:51:01	IÑAKI	SATRUSTEGI	BETELU

Ezkurdiren joan eta etorriak

Jose Antonio Oreja Mendiburu du izena, baina Ezkurdi ezizenez ezagutzen dute eskualde osoan. 1949an jaio zen Errazkinen. Orain, erretiraturik dago eta azken urte honetan denbora pasa berri bat dauka: Jali.



euskaraz hitz egiteko izkina batean edo etxe barrura sartu behar izaten genuen.

Baina erdaraz ba al zenekiten?

Bai! Hala modun! Zerbait erdaraz esaten asmatzen ez genuenean etxean sartzen ginen euskaraz esateko. Bestela kanpoan harrapatuz gero “anilloa” zegoan soka batekin eta horrek esan nahi zuen “kastigue zurekin zegoala”. Eskolan bagenuen estufa bat eta bakoitzak etxetik egur puska bat eramaten genuen sua egiteko. Estufa hark bazuen txapa zabal bat sua zirikatze eta gaiztakeriren bat eginez gero horrekin jotzen zigan maistroak.

Zu zer moduzko ikaslea zinen?

Ni oso oso ona, egitan. Baina ni hamalau bat urterekin Erreterira joan nintzen artzain eta handik urtebetera Errialdera.

Eta dirua amarentzako?

Hombre! Zeinentzat ba! Nik aita ez nuen ezagutu ia. Aitak Antonio izena zuen eta amak Barbara. Aita hil eta sei hilabetetara anai gazteena jaio zen eta handik urtebetera etxea erre zitzaigun Santiago Egunean.

Baina zu ez zara atzean gelditzen den horietakoa...

Badakizu ze egiten genuen guk umetan? Uitziko Periko eta Roman Sukunza automobilarekin etortzen ziren azukrea, kafea eta bestelako gauzak saltzera eta gu eskolatik ateratzen ginenean lapurtu egiten genien.

Eta zeintzuk zenituen lapurretarako lagunak?

Estaniz Artola, Arguiñarena, Jose Manuel Ansorena... Batzuk zelatatzen zuten bitartean beste besteak ostu eta aire! Carlos Olaetxea uitzarrak ere herriko kurbara hurbiltzen zenean eta ikusten gintuenean ondotik alde egiteko esaten zigun! [Kar, kar, kar].

Eta Errialdetik nora joan zinen lanera?

Nik urte asko kanpoan eman ditut ka-

Ze etxetan jaio zinen Jose Antonio?

Ezkurdi etxean. Lau anai gara, ni bigarrena. Jose Mari da zaharrena, gero ni, ondoren Luis eta gazteena Miguel.

Eta zuen gurasoak nongoak ziren?

Aita bertakoa, eta ama Betelukoa. Garai hartan jende asko bizi zen hemen. 44 laguneko koadrila biltzen ginen karnabaletan. Denak herrikoak. Ni soldadu nengoela galdu ziren Errazkingo karnabalak. Akordatzen naiz Tarragona eta Kaxiano etortzen zirela akordeoi banarekin eta ambientea izaten zen. Baina inguru hauetan ez zen “agarrau” dantzatzen. Don Juan Mitxaus, Lekunberriko Barboneako apezka genuen herriari eta hark ez zuen uzten.

Baina kasu egiten al zenioten?

Pekatua zela... Eta zerua ez genuela irabaziko eta...

Eta karnabaletan zer egiten zenuten?

Goizean puska biltzera ateratzen ginen. Kaxiano itsua zen eta gia lanetan pertsona bat ibiltzen zen, beste bat zakuarekin etxetara ematen zigutena biltzeko eta hirugarren bat saski batekin arrautzak biltzeko. Biltzen zenarekin tabernan gosaltzen genuen eta eguerdian Maria Intxaurrondok txekorra gisatuan prestatzen zigun bazkaritarako. Hemezortzi urte betetzen genituenean sartzen ginen herriko koadrilan eta karnabaletan izaten zen estrenaldia. Nere urtean bost gazte sartu ginen.

Eskola garaiaz ze oroitzen daukazu?

Nik irakasle asko izan nituen. Ansorena eta Maria Perez gorritiarra ziren maisuak.

Eta zer moduzkoak ziren?

Euskara hitz egiten ez zuten uzten eta

mioiarekin. Hasieran Gorriti, Uitz, Lekunberri, Albiasu, Baraibar eta Mugiron esnea biltzen ibiltzen nintzen eta ondoren kanpoan. Zurgindegi batean ere ibilitakoa naiz. Badakizu nola moztu nuen behatz hau?

Nola?

Martuteneko zurgindegi batean egiten genuen lan nik, Argiñarenak eta Bete-luko Malkorrek. Behin Oialumera joan ginen eta jesukristoren parranda egin ondoren, zuzenean lanera. Argiñarenak makina martxan ja-ri eta makinak zituen mozteko hortzekin hiru behatz moztu zituen. Malkorra zerra batekin ibiltzen zen eta handik gutxira berak ere eskua moztu zuen eta atzetik nik behatza. Hirurak egun berean. Hirurak Gurutze Gorrira eta baja! [Kar, kar, kar].

Eta orain anaiari ardiekin laguntzen diozu...

Bai, lan gehiegi egiten dut.

Zenbat ardi dituzue?

Asko eta fundamentuzkorik bat ere ez!

Zenbat?

Hori ez dizut esango!

Gutxi gorabeherako bat bota?

Ardi izenarekin 400 bat, baina balorekoak 4. Eta behiak hamabost bat.

Orain denbora pasa xelebrea bat ere baduzu... Noiz ekarri zenuen basurdea?

Duela urtebete mendian harrapatu zuten, Arribe inguruan eta Ruben eta Eneko Saralegik afizioa badute eta nora eramanez ez zekitelako, azkenean Errazkinera ekarri zuten. Herrian bada borda zahar bat, Matxineko borda eta horra eramanez zuten inori ezer esan gabe. Baina handik nentzela, niri basurdekumea azaldu zitzaidan. Nik han bertan utzi nuen, baina atzetik herriraino etorri zen eta geroztik egunero-egunero janaria eramanez diot.

Eta zer ematen diozu jateko?

Denetik, oilasko hezurak, patatak, artoa... Egundero joaten naiz automobilarekin. Borda hori oso gaizki dago. Herriaren ondoan bada ur depositu zahar bat, bi metro luze eta metro bat

zabal izango ditu eta horra ekarri behar dut.

Izena jarri al diozu?

Jali! "Jabali", Jali. Gainera paseatzera ateratzen dudanean kasu ere egiten dit.

Eta ez al du alde egiten?

Ez. Sokatik helduta eta aske ere oso ongi ibiltzen da.

Baina orduan orain basurdea norena da? Zurea ala saralegitarrena?

Ez dakit. Baina beraiek ez dute era-

mango. Munduaren erdia patu beharko dute eramanez gero.

Ez al duzu akabatu eta jateko asmorik?

Ez, ez. Pena ematen dit.

Eta zer egin behar duzu basurde horrekin?

Jaten eman eta orain hotela jarri behar diot depositu zaharrean. Burdin-eko atea du eta lehoa atera behar diot ateari, handik herriko umek janaria botatzeko eta basurdearekin jolastu ahal izateko.



Jabe berriak, giro berria

Mikel eta Miren Zulaika anai-arrebek urrian hartu zuten Aralarko San Migueleko Jatetxearen ardura. Lasartearrak izan arren Lekunberrin bizi dira dira eta beti ostalaritzaren arloan aritu dira lanean.

Nolatan animatu zarete jatetxea hartzera?

Mikel: Nik hemen bost urte neramatzan lanean sukaldari aurreko arduradunekin eta uzteko erabakia hartu zutenean Mikel Larranbere apaizarekin elkartu nintzen. Nire ustez jatetxeak aukera gehiago izan zezakeen beste modu batean kudeatuz gero.

Miren: Ni Tenerifen bizi nintzen eta Mikelek deitu zidan esanez: "Etortzen bazara hartu egingo dugu". Eta hemen nago... [Kar, kar, kar].

Noiz hasi zineten ofizialki?

Mikel: Urrian hasi ginen eta momentuz oso hasiera polita izaten ari gara.

Miren: Astez biok bakarrik egoten gara eta asteburuetan langile gehiago izaten ditugu.

Eta zer eskaintzen duzue?

Mikel: Goizetan, pintxoak eta hamaiketakoak ematen ditugu, eguerdian astez eguneko menua izaten dugu 11.50 eu-

rotan eta asteburuetan berriz 23 euroko menu bereziagoa izaten dugu. Dena etxean egindako janaria da eta ahalik eta goxoen prestatzen dugu.

Miren: Eta beti txuleta, arku-meia eta babarrunak izaten ditugu eskaintzeko. Babarrunek arrakasta handia izaten dute, jendeak gustora jaten ditu, batez ere hotza egiten duenean.

Astez ze perfileko jendea etortzen zaizue?

Miren: Astez mendizaleak, jubilatuek eta oporretan dagoen jendea etortzen da. Eta asteburuetan mezetara datorren jendea, astegunetan lanean ibili diren mendizaleak, familiak...

Miren: Astegunetan gure bezeroekin harreman handiagoa izaten dugu. Askoz ere lasaiago ibiltzen gara eta bezeroak ezagutu astegunetan ezagutzen dira. Tratua goxoagoa izaten da.



Eta bezeroak nongotarrak izaten dira?

Mikel: Gehienak gipuzkoarrak eta ingurukoak. Baina leku guztietako jendea etortzen zaigu. Zubietan esaterako katalan eta valentziar asko etortzen dira, eta aurten, Almudena Egunean, Madrildik bi autobus etorri ziren adibidez.

Miren: Baina asteburuetan gehien-goia gipuzkoarrak izango dira. Hau Nafarroan izan arren, gipuzkoarrok oso gurea sentitzen dugu eta joera handia daukagu hona etortzeko. Gu geu txikitatik etorri izan gara gurasoekin.



Lekua zoragarria izan arren, hemen lan egitea ere gogorra behar du...

Mikel: Hemen lan egitea pribilegio bat da. Egunsentiak eta ilunabarrak benetakiko ikuskizun bihurtzen dira. Behin baino gehiagotan atera izan gara kanpora kafea hartuta ilunabarrak ikustera.

Baina elurra egiten duenean...

Miren: Niri kostatzen ari zait Tenerifetik etorri ondoren hemengo klimara ohitzea, baina Mikel elurra egiteko de-seatzen dago. Elurte handi bat egingo balu ere, janaria badugu, egurra bada-gu, gasolio deposituak beteta daude...

Mikel: Niri betidanik gustatu izan zait elurra. Aurten bi elurte txiki baino ez ditu egin oraingoz.

Jatetxeak tabernaz gain jantokia ere badauka.

Mikel: Bai. Bi jantoki handi dauzka baina momentuz bakarrarekin gabiltza. Hasiberriak gara eta martxa hartu arte nahiago dugu poliki joan. Jendea gustora gelditzea da garrantzitsua.

Miren: Gainera lehenik langileen talde on bat osatu beharra daukagu. Jantoki bakoitzean 100 lagun inguru sartzen dira.

Eta aterpean aldaketak egin dituzue ezta?

Mikel: Ez dugu aldaketa handirik egin baina lehen baino jende gehiago etortzen hasi da. Aurreko jabeek hala erabakita, beharrezkoa zen tabernan kontsumitzea aterpea erabili ahal izateko. Guk debeku kartel horiek kendu genituen. Uste dugu gastatzeko dirurik ez dutenek ere eskubidea dutela San Mi-

guelera etortzeko. Gainera, normalean aterpera etortzen diren gehiengoak kontsumitzen du zerbait.

Jatetxearen gainean logelak ere badira...

Miren: Bai, baina itxita dago. Izugarri logela handiak eta dotoreak dira, baina urte asko darama itxita eta zerbitzu hori emateko berritu egin beharko litzateke. Gainera hau guztia elizarena da eta be-rea da erabakia. Dena den, aurtengo udan, salbuespen gisa, arkeologo bat izango dugu bi hilabetez ostatu hartuta. Santutegiaren alboko ermitaren azpian garaiko kanposantu bat dago eta indus-ketak egiten hastekoak dira.

Zer moduzko harrera izan duzue bezeroen aldetik?

Miren: Oso ona.. Ez dugu ezer berezirik

egin, baina askok atetik sartu orduko aldaketa sumatzen dutela esan digute eta euskaldunak izatea ere eskertzen digu jendeak. Bestalde, egunero deitzen digute Arrate irratitik hemengo eguraldiaren eta kontuen berri eman diezaiegun.

Mikel: Oraindik martxa hartzen gabiltza, baina oso pozik gaude.

OHARRA: Lan eskaintza!! Ostalaritzan esperientzia duten langileak behar dituzte San Miguelen.

Erreserbak: San Miguel de Aralar
Jatetxea. 948 373 032 / 680 444 457



*Lagundu
Mailope!*

Mailopeko bazkidea
izan nahi duzu?
mailope@labrit.net



GARAZ Zure behar eta ordutegira moldatuko gara

Mate
erdi eta goi zikloetarako prestaketa

Fisika Inglesa
lengua kimika

948 504 450
648253522

euskera marrazketa teknikoak
historia

unibertsitate mailako ikasgaiak

AUTOZERBITZUA · ARRAINDEGIA · HARATEGIA ·

PATXI GALARZA
Astelehenetik larunbatera
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00
Igande eta jaiegunetan
8:00 - 14:00

Irurtzun

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARAITZ
LARRAUN
JALMENTA ETA KOMPOTZEN

634 551 743
infoaralar@gmail.com

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

“Zwekere proiektuarekin entzuleak taldearen parte bihurtu nahi izan ditugu”

Aldizkariaren urteurrenaren bueltan asko dira jasotzen ari garen opariak, azkena Zwekere taldeak Mailoperen alde Kantinan eskainitako kontzertua.

Nola sortu zenuten taldea?

Batukada arruntetan denbora asko ibili ondoren, Brasilen izan eta gero, Oskarri batukada eta bestelako musika tresnak nahastuko zituen taldea egiteko nahi zitzaion. Hainbat taldetan ibili eta gero, euskal taldeen bertsioak egingo zituen taldearen ideia etorri zen. Ordenagailuz kanta nola izango ziren muntatu eta gero, gauzatuko zituen taldea biltzea izan zen hurrengo pausoa, Lekunberriko, Zubiriko eta inguruetakoko jendearekin.

Nolakoak izan ziren lehen entsaio haiek?

Atarrabiako gaztetxean hasi ginen, ostegun arratsaldeak horretarako hartuta. Inoiz horrelako talde batean aritu gabeak ginenez, hasierako egunak gure burua kokatzeko izan ziren. Momentu gogorak ere izan genituen, ekipoaren zati bat lapurtu zigutenekoa adibidez. Talde guztia batuta ordea, aurre egin genion gastuari eta ederra izan zen! Gerora Atarrabiako Kultur Etxean eta azkenik Zubirin entsaiatzen genuen.

Zwekere izenak zer esan nahi du?

Shekere-a jotzen dugun tresnetako bat da, maraka antzeko bat. Guk ikusten genuen talde bezala musika egin nahi genuela jendearentzako, jendea ere taldekoa zela. Hortik sortu zen izena: shekere, zuek-ere, zwek-ere. Ez da erraza ulertzeko ez dakienarentzat, baina guk beti oso argi izan dugu eta asko gustatu izan zaigu.

Ibilbidean zehar zer izan duzue alde?

Taldekideok proiektua ateratzeko izan dugun gogo eta batez ere, elkarren artean izan dugun giro bikaina. Entsegu bakoitza, festa bat zen, kontzertu bakoitza ere. Gozada zen momentuak elkarrekin partekatzea eta gogo horrek bereziki lagundu digu aurrera egiteko. Fintasuna ere nabaritu da entseguetan

moldatzeko orduan, musika egiteko orduan, kontzertuaren egitura egiteko moduan... Jende jatorrarekin, edonora!

Sortzen abestia egiteko aukera nondik sortu zen? Zer moduzko esperientzia izan zen?

Taldekoon ezagun bat Sortzenen ari zen lanean eta kanta behar zuten festarako. Askok gustatzen zitzaion gure formatua eta proposamena egin ondoren, onartu genuen. Lan extra mordoxka izan zen kantua egin, grabatu, bideoa.... Baina Sarrigurentzat eta guretzat baikorra izan zela uste dugu. Mezu baikor eta indartsua txertatu nahi genion zailtasunak dituen herriari, eta lortu genuela uste dugu.

Lekunberriko Kontzertua Mailoperi eskaini diozue. Zer moduz joan da?

Taldearen bukaera aurreikusita, jotzen egin nahi genuela argi genuen, horretarako kuttunak izango genituen lekuak aukeratuz. Eskualdekook Kantina ezagututa, gure jendearentzako bertan egin nahi genuen agurra. Kantinan beti dute ohitura sarreratxo kobratzeko, eta guk, dirurik nahi ez genuenez baikik eta gure lana eskaini eta gozatu,

pentsatu genuen gure jendea elkartzen duen Mailoperi kontzertua eskaintzea ideia ona zela. Eta horrela izan zen, 75 pertsona etorri ziren kontzertura (umeak kontatu gabe, asko zeuden eta asko gozatu zuten gainera!) eta giro bikaina egon zen. Kontzertu hunkigarria izan zen. Mila esker Kantina, Mailope eta gerturatu ziren guztiei!

Azkenetakoa izan da baina ez azkena. Azkeneko kontzertuak noiz eta non izango dituzue?

Lakabe herrian egingo dugu hurrengo martxoaren 19an, harremana dugun herria da eta oso berezia, autogestionatua, dantzaria... Udaberriko jaia bertan ospatuko dugu. Bukatzeko, bertako talde feministak antolatuta Gernikako Astra kultura fabrika sozialean joko dugu. Lekua paregabea da kontzertuetarako, gure taldekide bat orain bertan bizi da eta talde feministan dabil... Agurtzeko modu ederra izango da. Agur esateak badu penatik asko, baina gauzak bere garaiak eta ongi egiteak, sekulako indarra duela sentitzen ari gara. Talde hau betirako geratuko da taldekideon zainetan!



otsaila

12

Mailope Aldizkariko batzar irekia, iluntzeko 19:00etan Beteluko Indianoetxean.

19

Correscales lasterketa, Bilbotik Bartzelonara. Korrika honen bitartez, langile klaseak pairatzen duen prekaritate egoera salatu nahi da eta era berean, Telefonikako langileentzako dirua lortu. Hilaren 19an Betelutik eta Lekunberririk igaroko da, eguerdiko 15.00etan eta 16.20etan.

22

Lekunberri: Mailope lasterka txikia Lekunberrin barna. Hasiera Ibarberri eskolako atarian 16:50etan.

martxoa

12

Izotz-pistara txangoa Larraun eta Lekunberriko DBH-ko gazteekin. Izen-emateko azken eguna, martxoak 3.

agenda

merkatu txikia

SALGAI

- VPO pisua salgai Atallun. Bizitzera sartzeko prest. 90 m2ko bizitza, garajea eta trasteroa. 115.000€. 646179746 (Miren).

- CITROEN C5 HDI- 140 CV- 2000 cv Kotxea salgai. 431.000 Km eta 5 urte eta erdi (2010eko uztaila) ditu. Oso egoera onean eta salneurri ezin hobean. Interesa baduzu, lasai jarri harremanetan: 646 870 837 (Bixente).

LAN BILA

- Lekunberrin emakume bat prest edozein lanetan aritzeko: etxe lanak, pertsonen zainketa, etxebizitzaren garbiketa etab. Emilia Dimitrova: 948 60 48 93 / 679 053 368.

LAN ESKAINTZA

- Adineko bi pertsona zaintzeko emakumezko bat behar da Errazkinen. 948 50 43 62.

Ostalaritzan esperientziadun langileak behar dituzte Aralarko San Miguel Jatetxean. 948 373 032 / 680 444 457.

ADI!

Merkatu Txikian iragarki bat jarri nahi baduzu idatzi mailope@labrit.net-era. Publizitate eskariak bi hilabetez egongo dira jarrita, ondoren kontrako abisurik jasotzen ez badugu kendu egingo ditugu.

ZURE ESKAINTZAK MUNDU OSORA



web diseinua
publizitatea
euskarriak
diseinu grafikoa

649268929
www.sareak.eus



sareak DISEINUA & KOMUNIKAZIOA

#CORRESCALES 2016 #KORRIKAPREKARIOA

Europako 2. errelebo-lasterketarik luzeena
oraingo elkartasun proiekturik handienarentzat



4 egun
80 korrikalari

SAStraka auto 4x4

Ibilgailuen Mekanika Orokorra
(azterketak, gurpilak, olio aldaketak,...)

Baita Todoterrenoetan Espezializatua ere
(prestakuntzak, homologazioak, erreformak,...)

Industrialdea, 9 31870 Lekunberri 948.60.48.06 Iñigo
www.sastraka4x4.com

M. Angeles
Urrizalki

iragarkiak,
berriak,
eskelak...

Diario Vasco eta
Diario de Navarrako
Korrespontsala

948513056
699179437

aitz berri

edertasun
zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890

948 513 083
696 732 290

aitzberri@hotmail.com



Otsailak 13

10:30 - Iñauteri hasiera plazan.

11:00 - Karrika dantza, ondoren kalejira 3indarrok electrotxaranga-
garekin

15:00 - Herri bazkaria

Eman Zazu Showa:

Animatuko zinateke zure mozorroaren inguruko abestiren bat
abestera? Antzerkitxoren bat egitera? Dantzaren bat egitera...?

Bakarrik, lagunekin... Anima zaitetz, primeran pasako dugu ta!!!

18:00 - Ze Suma taldearekin dantzaldia

00:30 - Xabi Dantzaleku DJ.

ALDAZKO IHOTEAK

Otsailak 6

11:00 - Gosaria herriko Martixa Elkartean.

12:00 - Erronda trikitilariekin sagardotegira ta ostatura.

14:00 - Bazkaria elkartean eta ondoren erronda eta mozorroaren
erretzea.

21:00 – Afaria ostatuan eta dantzaldia.

ALLIKO IHOTEAK

Otsailak 6

13:00 - Puska biltza etxez etxe.

14:00 - Otordua

17:00 - Mus txapelketa eta bingoa

18:00 Txokolatada

Arratsaldean zehar

Musika eta giro ona ostatuan!

21:00 Afari autogestionatua

23:00 Parranda!!

BARAIBARKO IHOTEAK

Otsailak 6

10:00 – Herriko plazan elkartzea (Denok mozorrotuta!!)

10:15 – Gosaria herriko ostatuan (Herriak gonbidatuta)

11:30 – Kalejira herrian zehar Mendiberriren soinuarekin.

15:00 – Bazkaria herriko ostatuan eta ondoren festak jarraitu
egingo du Mendiberrirekin.

ARRUIZKO IHOTEAK

Otsailak 20

Goizean puska-biltza herrian barna musikarekin, gero bilduta-
koarekin bazkaria izango da. Iluntzen attezarren erretzea eta
amaitzeko afaria.

GAINTZAKO IHOTEAK

Martxoak 5

11:00 – Puskabiltza herrian barna trikitilariekin.

Arratsaldean musika eta herri poteoa.

21:30 – Afaria Sonbelu elkartean.

00:30 – Goizaldera arte mozorro dantzaldia.